

Gure aplikazioan bezeroiei, ikasketak antolatzeko zerbitzu pertsonalizatu bat eskainiko zaie.

Bertan, hainbat atal atal ezberdin aurki ditzazkegu. Alde batetik, aplikazio bido ezberdinak egongo dira bakoitzaren beharretara egokituta. Hau da, fisikak, kimika, historia eta beste hainbat ikasketarako errefortzuak egongo dira. Lehen aipatu dugun moduan, bidioen bidiez ikasteko aukera egongo da, baita ere ordu jakin batzuetan, irakasle bat online konektatuta egongo da edozein zalantza argitzeko. Bestalde, gure ikasketetan lortutako emaitzak antolatuko dituen diagramak eta grafikoak edukitzeko aukera izango dira. Eta gainera, esate baterako gure azken nota lortu ere ahalko genuke automatikoki. Azkenik, aplikazioan beste atal bat aurkitzeko aukera egongo da. Bertan, etorkizunari begitaratuz, laguntzeko azalpen bidioak bila ditzakegu. Hau da, batxilergoa bukatutakoan zer egin ez dakitenentzat edozein ikasketetako azalpenak egongo dira, unibertsitate, goi maila, nahiz erdi maila arloei buruz. Honekin, berain etorkizuna garbiago ikustea da gure helburu.

Askotan, ikasleak galduta egoten dira, kurtso guztian zehar beraien organizazio falta dela eta. Aplikazio honek arazo honi aurre egingo lioke, erabilerraztasuna eta kalitatea bultzatzen dugulako, gure ikasketen diseinu berritzaile baten bidez antolatuz. "Zure bizitza profesionala antolatzeko ezinbesteko plataforma" esloganarekin aurkeztuko dugu proiektu hau.